

Juan Kruz Igerabidek "Odisea"ren gaia hartuta Homerok idatz zezakeen eleberria plazaratu digu. Izan ere, idazle euskaldunak epopeiak grekoan agertzen den istorioa birkontatu du gazteentzako abentura nobela bailitzan. Lehenengo eta behin, esan behar da honelako egokitzapenak interesgarriak izan daitezkeela baldin eta irakurle gazteak literaturara hurbil daitezzen nahi badugu, hau da, garrantzitsuena irakurleak eta literaturazaleak sortzeko asmo bada. Beste idazlan batzuetara heltzeko zubiak dirateke klasikoen egokitzapen hauek. Honelako idazlanek duten berezko literatur balioak, ordea, eztabaidagarriak iruditzen zaizkit. Istorio bat, literatur diskurtso bat batean gauzatzen denean bihurtzen da literatura, eta Homeroren kasuan, Ulisesen abenturak epopeia batean islaturik ikusten ditugunean gaude literaturaren aurrean. Istorio horri berezko diskurtsoa kentzen badiogu, abentura nobelatxo bat baino ez zaigu geratzen, nahiko nahasia, argumentuaren aldetik, eta kontaerak berez behar duen erritmoa galduta. Kontua ez da originala egokitzapena baino hobea izatea, baizik eta bi testu-mota oso desberdinak direla, argumentu berbera izan arren. Istorio interesgarria beharrezkoa izan daiteke eleberri bat egiteko, baina ez da nahikoa izaten.